

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Ordain aldia irekitzea: landa, hiri, eta ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren gaineko zerga, 2021eko ekitaldia

Nik, Erika Letamendi Hurtadok, Arabako Donemiliagako Udaleko alkateak.

Jakinarazten dut: 2021eko azaroaren 1etik aurrera ordaindu ahal izango direla borondatezko epean 2021eko ordainarazpen hauek:

- Landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga.
- Ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren gaineko zerga.

I. Ordaintzeko epea.

A) Borondatezko epea: 2021eko azaroaren 1etik abenduaren 8ra.

B) Betearazte aldia: 2021eko abenduaren 9tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko tokia eta modua.

A) Aurreko urteetatik ordainketa banku erakundeetan helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, oraindik helbideratze kontu berbera badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Ordaintzeko lekuak:

- Kutxabanken bulegoak.
- Laboral Kutxaren bulegoak.
- Internetez, Donemiliagako Udalaren www.donemiliaga.eus/es/ayuntamiento web orrian (Nire ordainketa).

III. Gomendioak.

Bankuko helbideratzeen altak edo aldaketak eta jakinarazpenetarako helbideen aldaketak Donemiliagako udaletxean izapidetu behar dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Erdoña, 2021eko urriaren 6a

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO